

# UPV/EHU-REN IRUDIA ZABALTZEN LAGUNDU DUTEN IKASLEAK SARITZEKO VII. DEIALDIA

## DEIALDIAREN OINARRIAK

### 1. Deialdiaren helburua

Deialdi honen helburua, UPV/EHUko ikasleek egindako ekimen, proiektu eta beste jarduera batzuen bitartez, Unibertsitatearen irudia zabaltzen lagundu duten ikasleak saritzea da. Horretarako, Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzak zazpigarren deialdia martxan jarri du.

Deialdia, 2015-2016 edo 2016-2017 ikasturteetan UPV/EHU n matrikulatutako ikasleentzat dago zabalik.

***Sari hauetara aurkeztutako proposamenek txosten baten bitartez frogatu beharko dute ikasleek eginiko jarduerak eragina izan dutela UPV/EHUk gizartean duen irudi onean.***

### 2. Eskaerak

Eskaerak banaka zein taldeka aurkez daitezke. Jarduerak 2015-2016 edo 2016-2017 ikasturtean zehar herrian, probintzian, estatuan edo nazioartean eginikoak izan daitezke.

Adibidez, eta oso zehatzak izateko asmorik gabe, hona hemen deialdi honetan parte har dezaketzen jarduera edo proiektu batzuk:

- Jardunaldiak, txostenak, hitzaldiak, erakusketak, mahai-inguruak, bisitak, eta abar antolatzea.
- Sarietan, lehiaketetan, lehiaketan, sustapenetan, eta abarretan parte-hartzea.
- Borondatezko kanpoko praktiketan, boluntarioritza, lankidetzak edo integrazio ekintzetan, eta abarretan parte-hartzea.
- Beste jarduera aipagarri batzuk.

Deialdi honetan ez da onartuko izaera akademikoa duten eta aldizkari akademiko-zientifikoetan argitaraturiko ikerketa artikulurik, ezta UPV/EHUko pertsonal bezala parte hartutako proiekturik ere.

### 3. Eskaeraren edukia

Izen emate orria osatu eta hemen zehazten den informazioa duen eta eragin soziala arrazoitzeko balioko duen memoria eta eranskinak atxikituko dira, atal hauek izango ditu gutxienez:

- Eginiko jardueraren identifikazioa eta deskribapen laburra.

- Jardueraren aurkezpena eta helburuak.
- Alegatutako merituen azalpena eta arrazoibidea: zergatik baloratu behar da jarduera hori?
- Eranskinak: Adierazitako ekitaldietan parte hartu izana egiaztatzen duten dokumentuak eta egokitzen jotzen diren guztiak. Egiaztapen-dokumentu gisa onartuko dira prentsa oharrak, aldizkarietako artikulatuak, ikus-entzunezkoak, deialdia egin duen erakundeak eginiko txostenak, parte-hartzearen egiaztagirak, euskarri birtualetan izandako eragina eta, oro har, jardueraren irismen edo eraginari buruzko informazioa ematen duten guztiak. Dokumentazioa ZIP artxiboetan edo esteka zuzenen bitartez aurkez daiteke, artxibo bakoitzak gehienez ere 25MB izanik.

Memoriak hiru orrialde izango ditu gehienez (1.000 hitz inguru); PDF formatuan aurkeztuko da; eta 12 tamainako sans serif letra mota erabiliko da, lerroarte bakunarekin.

Ez dira kontuan hartuko agiri bidez egiaztatu ez diren merituenak.

#### **4. Eskerak aurkezteko epea, modua eta deialdiaren ebazpena**

Eskerak aurkezteko epea 2016ko azaroaren 18an amaituko da, eta UPV/EHUko web orrian izen emate formularioa osatuz eta dokumentazioa atxikiz burutuko da.

<http://www.ehu.eus/eu/web/ikasleak/irudiaren-sariak-inprimakia>

Memoria justifikatiboaren eta emandako dokumentazioaren arabera egingo da sariaren ebazpena. Epaimahaiaren ebazpena apelaezina izango da, eta 2013ko abenduaren 2an argitaratuko da UPV/EHUren web-orrian.

Halaber, ebazpena saridunei jakinaraziko zaie.

Sari-banaketa 2016ko abenduaren 12an egingo da, Bilboko Bizkaia Aretoa eraikineko "Elhuyar" Aretoan (Abandoibarra hiribidea, 3. Bilbo).

#### **5. Epaimahaia eta funtzionamendu-arauak**

UPV/EHUko honako kide hauek osatuko dute epaimahaia:

- Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko errektoreordea edo hark izendatutako pertsona.
- IIko eta AZPko kide bana, biak ere Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko errektoreordeak izendatutakoak.
- UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko kide bat.
- Idazkaritza Nagusiko pertsona batek egingo ditu idazkaritza-lanak.

Aurkeztutako proposamenak aintzat hartzeko, honako baremo hauetan oinarrituko da epaimahaia:

- Memoriaren azalpena eta arrazoibidea (gehienez ere 20 puntu)

- Proposamena berritzailea izatea (gehienez ere 20 puntu)
- Zabaldutako irudiaren kalitatea (gehienez ere 20 puntu)
- Jarduerak herrian, probintzian, estatuan edo nazioartean duen irismena (gehienez ere 15 puntu)
- Jardueraren eragina (gehienez ere 15 puntu)
- Aintzat hartu beharreko beste zenbait alderdi (gehienez ere 10 puntu)

Epaimahaiak lehiaketa, sari bat edo gehiago esleitu gabe uzteko eskubidea izango du; horrela, beste lehiaketa baterako deialdia egin edo beste oinarri batzuk finkatu ahal izango ditu, lan berriak aurkez daitezzen.

## 6. Sariak

Deialdi honetarako aurrekontu-ekarpena 8.000 € da.

Hiru sari emango dira (lehenengo saria: 2.500 €; bigarren saria: 1.500 €, eta hirugarren saria: 1.000 €) eta accesit bat, 600 eurokoa, jakintzaren adar bakoitzeko: Gizarte eta Lege Zientziak; Zientziak; Osasun Zientziak; Ingeniaritzak eta Arkitektura; Artea eta Giza Zientziak.

Saritik sor daitezkeen zerga betebeharrak saria jasotzen duenak hartu beharko ditu bere gain, eta ez UPV/EHUK.

Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzen direla esan nahi du

Donostian, 2016ko urriaren 25ean

**Maite Zelaia Garagarza**

Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren Arloko Errektoreordea  
Vicerrectora de Estudiantes, Empleo y Responsabilidad Social